

C DOKUMENTUA
EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO
JARRAIBIDEEN AZTERKETA

C. DOKUMENTUA.- EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA

1. Hiri Antolamenduko Plan Berezia garatzeko baldintzak

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honek irismen mugatua duenez gero —"a.220.4/3" azpipartzelako etxebizitza kopurua zuzentzen da eta "bizitegi kolektiboa" aipamena kentzen da—, eta azpipartzela hori guztiz urbanizatutako orubea denez gero, zehaztu behar da ez dela baldintza berezirik ezarri behar Hiri Antolamenduko Plan Berezia egikaritzeko eta kudeatzeko; nolana ere, eta hirigintza eraikigarritasuna gehitzeagatik hirigintza zuzkiduraren bidez egin behar den jarduketa den heinean, zuzkidura karga altxa beharko da, 2011ko Ordenantzan ezarritakoaren arabera (GAO, 2011/04/20).

Azpipartzelaren kategoria juridikoa hiri lurzoru finkatu gabearena da, hirigintza eraikigarritasun haztatua gehitzeagatik, eta zuzkidura jarduketa bat da.

Erabat urbanizatuta dago eta 2004. urtean onartutako ekitatez banatzeko prozesu baten emaitza da; dagoeneko laga eta urbanizatu da, eta urbanizazioa jasota dago.

Edonola ere, bete beharko dira Prebentzio, Su Itzalketa eta Salbamendu Zuzendaritzaren txostenaren ondoriozko baldintzak.

- Eraikingintzaren Kode Teknikoa - Oinarrizko Dokumentua – Suteetatik Babesteko Segurtasuna, 5. atala Suhiltzaileen lana, bete beharko da. “1. Hurreratze baldintzak eta ingurunea” eta “2. Fatxadatik sartzea” artikulua bete beharko dira.
- Espaloian lurperatutako suteetako ur harguneen —San Sebastian ereduak— zuzkidura aurreikusi beharko da. Harguneen arteko distantzia maximoa ehun metrotik beherakoa izango da, espazio publikoetan neurtuta. Suteetako ur harguneak urez hornitzen dituen sare hidraulikoak ahalbidetu beharko du

elkarren segidan dauden suteetako bi ur hargune bi orduz jarraian eta aldi berean funtzionatzea, bakoitza minutuko 1.000 litroko emariarekin eta gutxienez 10 metroko ur zutabeko gutxieneko presioarekin.

- Gainera, eraikina eraikitzeo proiektuan justifikatu eta bete beharko dira Eraikingintzaren Kode Teknikoa - Oinarrizko Dokumentua – Suteetatik Babesteko Segurtasuna eta Erabileraren Segurtasuna eta Irisgarritasuna araudia.

Donostia, 2022ko urtarrila

Talde Idazlearen aldetik

Sin.: José M^a Abad
Letradua

Sin.: Jorge Tanco
Arkitektoa

Sin.: Katrin Marrero
Arkitektoa